



ZUNDA BESIKALA DARAMAN PAZIENTEA

Zainketak eta gomendioak

Zunda urologiko horren bitartez, gernua behar bezala drainatuko duzu maskuritik kanpora, eta beharrezkoa da, berreskura zaitzen.

Zundak globo bat du muturrean, eta hori maskurian jarrita gelditzen da; horrela, ez da nahi gabe aterako.

Elementu hori gorputzetik kanpora dagoenez, beharrezkoak dira zainketa soil batzuk, behar bezala zainduta edukitzeko eta infekzio urologikorik ez izateko.

ZAINKETAK:

- Oso inportantea da eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzea, gernua biltzen duen poltsa hustu baino lehen eta gero, eta berdin zunda edonola ere manipulatzeko.
- Gernua biltzeko poltsa txiki bat emango dizute, hankako poltsa; erosoagoa izango da kalera irteteko; izan ere, arroparen azpian jar daiteke, hankari lotua, inondik ere ikusten ez dela. Gauez, hobe da poltsa handia erabiltzea; horrela, ez duzu izango poltsa bete delako kezkarik.
- Saiatu poltsaren zunda ahalik eta denbora gutxiena edukitzen itzalita, infekzio-arrisku gutxiago izateko. Saiatu inguruko ezer ez ukitzen zundaren eta poltsaren muturrekin. Gure langileek erakutsiko dizute poltsa nola aldatu era erraz eta seguruan.
- Gernua biltzeko poltsak txorrota-sistema bat du, eta horrek husteko bidea ematen dio. Hobe da komun-zuloan hustea, errazagoa eta higienikoagoa izango da.
- Saiatu zundari tirakadarik ez ematen.
- Edan egunean bi litro behintzat, kontraindikaziorik ez badago; horrela, gernua behar bezala drainatuko da, eta ez da trabatuko.
- Eduki gernua biltzeko poltsa maskuria baino beherago, belaun parean; horrela, grabitate-indarrari esker gernua ez da gora itzuliko.
- Inportantea da zunda garbia edukitzea. Garbitu zundak eta gernu-meatuak bat egiten duten alderdia egunean behin eta birritan, urarekin eta xaboiarekin, eta garbitu beti odolaren eta bestelako likidoen arrastoak.

ALERTA-SEINALEAK:

Joan zaituz Lehen Mailako Atentziorako medikuarengana, baldin eta

- azkurarik nabari baduzu, gernua iluna badator, hotzikara edo sukarra baduzu; beharbada, infekzioaren baten seinaleak izango dira.
- ikusten baduzu gernurik ez dela ateratzen edo gernu kopurua gutxitu dela; beharbada, gernua barruan gelditzen ari izango zaizu.